

EAEko hiru lurraldeetako irakaskuntza publikoan deitutako greba deialdiei erantzun zabala

Eskola Publikoaren defentsan eta lan baldintzen hobekuntzarako deitutako hiru greba egunetan hezkuntzako langileriaren %75a baino gehiagok parte hartu dute

STEE-EILAS, ELA, LAB eta UGT sindikatuek azaroan zehar EAEko hiru lurraldeetan Hezkuntza Publiko ez-unibertsitarioan greba egunak deitu ostean -21ean Gipuzkoan %80ko erantzunarekin, 23an Araban %70ekoarekin eta 30ean Bizkaian %75arekin- geure eta hezkuntza zentroetako langileri guztiaren satisfazioa azaleratu nahi dugu, greba deialdi eta mobilizazioei erantzuteko garaian emandako erantzun sendoagatik.

Honekin batera, geure aldarrikapenekin elkartasun eta ulermen maila altua adierazi duten gurasoen gehiengo zabalari eskerrak eman nahi genizkieke, azken finean aldarrikapen hauek beren seme-alabak hezten dituzten ikastetxetako lan baldintzak hobetzea eskatzen baitituzte, Eskola Publikoa defendatu eta hobetze aldera alegia.



Aipatu grebak irakasleri, hezkuntzako pertsonal laboral, sukaldari eta garbitzaileek duten haserreak agerian utzi ditu; izatez hauek denak, geroz eta konplexuagoa den jendartearen behar berriei erantzuna emateko eskolak jasan duen eraldaketari modu boluntario eta isil batean aurre egin diote azken urteotan. Hala da, eskola eta institutuak hezkuntza kalitate oso maila altua eskaintzen dute baina egunez egun sektoreko langileriak egin beharreko "aparteko lanari" esker; eta dagoeneko pazientzia agortu da.

Bestalde, Administrazioak egoera iraultzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu beharrean, arazo estrukturalak partxeen bidez konpondu nahian dabil; eta 2003tik hona makina bat batzar egin ostean, zero kostuko negoziaketa eskuratu nahi du eta honekin batera 2007rako aurrekontuak aurkezten ditu non Hezkuntzara bideratutako diru inbertsioa behera doan urtez urte.

Gustu txarrekoa da Hezkuntza Saila grebak ez babesteko erabiltzen dituen defenda ezinak diren azalpenetan eskola birtual bat aurkeztea –irakasleko 7 ikaslerekin- non etorri eta aurki ezazu esan beharko zitzaien. Paradoxiko eta susmagarria da Euskadiko Gobernuak geure egoera sozioekonomikoa aurkezteko garaian Europar Batasuneko herri aurreratuenekin alderatzea eta hezkuntzari dagokionean, arrazoi ezberdinak medio, egoera okerragoetan dauden Estatuko beste hainbat erkidego autonomikoekin egitea. Agian alderaketa hauek egiten Hezkuntza Sailak bultzatuta Euskal Administrazioaren diskurtso orokorraren aldaketaren aurrean ote gara?

STEE-EILAS 

irakaskuntza
ELA

gizalan


LAB
Irakaskuntza

FETE-UGT


Horrexegatik guztiagatik eta sektoreko gehiengo zabal batek hala aldarrikatzen duelako benetako negoziaketa bat exijitzen dugu eta bide horretan geure oinarrizko aldarrikapenetan berresten gara, zeintzuen artean dauden:

- Jendarteak eskatutako eta ikasleak dituzten behar berri eta ezberdinei aurre egiteko ikastetxeetan figura berrien ezarpena espezialista gehiago egoteko.
- 55 urtetik gorakoentzat eskola ordutegi murrizketa (ez lan ordutegikoa) ikasleriarekin zuzeneko arreta ordu gutxiago izateko.
- Egonkortasun akordioa mantentzea.
- Gelako irakasle kopuru altuagoa eta ikasle kopuru baxuagoa egoteko ratioen berraztertzea.
- Laboral ordezkoei udako oporren ordainketa.
- Sortutako baja guztiak ordezkoekin betetzea sortzen diren unetik bertatik.
- Sukaldari eta garbitzaileen lan baldintzen parekaketa Lakuako beraien homologoekin.
- Geure soldaten eroste ahalmena berreskuratu.
- Ordezkoen lan baldintzen homologazioa langile finkoekiko.



Azaroan gauzaturiko grebei emandako erantzun sendo eta zabala negoziaketarako klabe izango dela jakinik, STEE-EILAS, ELA, LAB eta UGT Hezkuntza Publikoko langile kolektibo guztiei datorren **abenduaren 11ean egingo den aldebikoan eman daitekeen emaitzaren gaineko informazioa adi jarraitzeko eskatzen dizuegu**. Gustuko emaitzak ez badira, **berriz ere deitu beharrean aurkituko ginen mobilizazioetan parte hartzeko deiarekin bat egitera eskatuko genizueke**.

HEZKUNTZA PUBLIKOA INDARTU ETA BERTAKO LAN BALDINTZAK HOBETUKO DITUEN AKORDIO DUINAK!

Bilbon, 2006ko abenduaren 4an

STEE-EILAS 

Irakaskuntza
ELA
gizalan

 LAB
Irakaskuntza

FETE-UGT
